

FUNTSEZKO JARDUERAK

Atal honetan, gure enpresaren barruan egingo ditugun jarduerak azalduko ditugu. Jarduera hauek norberaren gaitasun eta zaletasunekin egingo dute bat, enpresa aurrera eramateko behar ditugun funtzioak errazago bete ditzagun.

Lehendabizi, produktuaren diseinua finkatzea jarduera garrantzitsuenetariko bat da. Horretarako, ikerketa sakon bat egin behar dugu manten funtzionaltasuna eta erosotasuna bermatzeko material egokienei buruz. Funtsezkoa da ukitzean atseginak eta iraunkorrak diren, baina aldi berean beroa desaprobetxatzen ez duten ohialak identifikatzea. Era berean, diseinua ergonomikoa izan behar da, eta erabiltzaileen neurri eta behar desberdinetara egokitu behar da, besteak beste, pisuaren banaketa uniformea eta erabiltzailea gehiegi berotzen ez duen teknologia termikoa kontuan hartuta.

Ondorengo pausoa ekoizpena eta fabrikazioa izango lirateke. Enpresak ahalik eta hornitzaile aproposenak bilatu behar ditu, kalitate handiko materialak behar beste hornitu ahal izateko. Gainera, fabrikazio-prozesua kontu handiz gainbegiratu behar da, etapa bakoitzean kalitate-kontrol zorrotzak ezarriz, gure produktuak behar bezalako estandarrak betetzen dituela bermatzeko. Bertan josturen erresistentzia, pisuaren banaketako uniformetasuna eta osagai termikoen funtzionaltasuna egiaztatzea.



Hori egin ondoren, biltegiatzea eta logistika etorriko liratezke, mantak gure bezeroen eskuetara iristea ahalbidetzen dutenak. Enpresak sistema eraginkorrak ezarri behar ditu mantak baldintza egokietan biltegiatzeko eta produktuen eskuragarritasun egokia ziurtatzeko. Horren barruan dago gainproduktuorik ez izateko inbentario egokiak planifikatzea, horrek kostu gehigarriak eragin baititzazke, behar baina ondasun gehiago ekoizten baitira. Bestalde, logistikaren alorrean, entrega azkarrak eta seguruak bermatu behar ditugu.



Marketing-a ere funtsezkoa da merkatuan egoki kokatzeko. Gure produktuaren onurak nabarmenduko dituzten publizitate-kanpainak garatuko ditugu, hala nola loa hobetzeko, estresa murrizteko eta ongizate orokorrari laguntzeko gaitasuna. Sare sozialekin lan hori errazagoa izango da, eta aukera ematen digute gure bezeroekin elkarreragiteko, edo haien testigantzak partekatzeko.